



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

84. INFORMAZIO BULETINA

2013ko Abendua



GIPUZKOA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Abendua

NABARMENDU BEHARREKOA

> **Gipuzkoak 18,4 milioi euro jasoko ditu EGEF Eskualde Garapeneko Funtsetik 2014-2020 aldian**

Europako Parlamentuak Kohesio Politikaren 2014-2020 programazio-aldi berria abiarazteko onartutako arau eta irizpideen arabera, Europako eskualdeentzako funtsetan 325.000 milioi euroko inbertsioa egingo dela ezarri dute. Horietatik, eta esleipen-irizpideak aplikatu ondoren, Euskadik 396,2 milioi euro jasoko ditu guztira.

Euskadik jasoko duenetik % 65 (257,5 milioi) euskal administrazio publikoen jarduerak finantzatzen laguntzeko programatuko da. Gainerako % 35a ere (138,7 milioi) Euskadin aplikatuko bada ere, Estatuaren Administrazio Orokorra kudeatuko du. Euskal erakundeen esku-hartzeak finantzatzeko erabiliko diren 257,5 milioi euroetatik 71 (% 27,6) Europako Gizarte Funtsetik (EGIF) etorriko dira. Gainerako 186,4 milioiak (% 72,4), berriz, Eskualde Garapeneko Funtsetik (EGEF).

Administrazioka, Eusko Jaurlaritzak EGEF funtsen % 70 kudeatuko du (130,6 milioi) eta Foru Aldundiek gainerako % 30a (55,8 milioi). Zenbatekoa indarrean den baliabide-banaketaren arabera eta foru-entitateen ekarpenen zehaztapenen arabera banatuko da.

Hala, Gipuzkoari begiratuta, Eusko Jaurlaritzak egindako esleipenaren arabera, EGEFetik datozen baliabideak 18,4 milioi eurokoak izango dira 2014-2020rako. Horrek esan nahi du 36,9 milioi euroko zenbatekoarekin jarduerak programatu behar direla programazio-aldi berriak izango dituen zazpi urteetarako.

“Estrategia Empresarial” aldizkariak, azken alean (461. zk., 2014ko urtarrilak 1) dakar programazio-aldi berrian Kohesio Politikarako funtsak banatzeko Europako Parlamentuaren eta Estatuaren irizpideak aplikatuzetik etorri diren esleitzeen xehetasunak. Artikuluak Euskadin PO EGEF Euskadi 2014-2020 berrian txerta daitezkeen jarduerak hautatzeko eta proposatzeko Euskadin abiarazitako prozesua ere azaltzen du

Informazio gehiago:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19239/es/contenidos/informacion/politica_regional/es_2340/adjuntos/europa%20enero%202014.pdf



> 2014-2020 aldirako Europako Kohesio Politika gidatuko duten erregelamenduak onartu dituzte

Europar Batasuneko Kontseiluak abenduaren erdialdean onartu zuen 2014-2020 aldirako Europar Batasunaren Kohesio Politika berria gidatuko duten araudi eta lege berriak.

Kontseiluak onartutako araudi sortaren artean da Europako Egitura eta Inbertsio Funtz guztien (EGEF - Eskualde Garapenerako Europako Funtza, EGIF - Europako Gizarte Funtza, KF- Kohesio Funtza, LGNF - Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza eta IAEF - Itsaso eta Arrantzako Europako Funtza) xedapen komunak ezartzen dituen Erregelamendu Orokorra eta beste bost erregelamendu espezifiko. Zehazki, EGEF, EGIF eta Kohesio Funtserako erregelamendu espezifikoak, EGEFentzako laguntza Europako lurralde-lankidetzarako eta Lurralde Lankidetzarako Europako Taldeetarako (LLET) aldatutako erregelamendu berria dira.

Kohesio Politikarako arautegi berria onartu eta indarrean jartzearekin batera hasi da ofizialki 2014-2020 aldirako programaziorako egutegia. Hala, eta Erregelamenduen arabera, estatu kide bakoitzak Elkartzeko Akordioa aurkeztu beharko dio Batzordeari lau hileko epean (2014ko apirilaren amaierarako). Batzordeak, berriz, Elkartzeko Akordio bakoitza aurkezten denetik hiru hileko epean gomendioak egin beharko ditu eta aurkezten direnetik zenbatzen hasita, gehienez, lau hileko epean onartu beharko ditu, betiere, estatu kideak Batzordearen oharrak aintzat hartu ondoren. Elkartzeko Akordioak 2014ko abuztu amaierarako onartu behar direla ezarri dute.

Ondoren, eta onartutako araudia betez, estatu kideek Programa Operatiboak (PO) aurkeztu beharko dituzte hiru hileko epean. Batzordeak gomendioak egin beharko ditu POak aurkezten direnetik hiru hileko epean eta PO gauzatzeko, gehienez, sei hileko epea izango da aurkezten denetik zenbatzen hasita, betiere, estatu kideak Batzordearen oharrak aintzat hartu ondoren.

Hala eta guztiz ere, eta arau orokor gisa, estatu kide guztien Programa Operatiboek 2015eko urtarrila amaierarako onartuta egon beharko dute.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/JOHtml.do?uri=OJ:L:2013:347:SOM:FR:HTML>



> ALTUNING PRO GIPUZKOA 2013 sari-banaketa

Altuning Pro Gipuzkoa programak Gipuzkoako unibertsitateko ikasleek atzerrian egindako ikasketetan eskuratutako ideietan eta esperientzietan oinarritutako proiektuak saritzen ditu; ezartzean Gipuzkoako bizikaltatea hobetzeko aukera ematen duten proiektuak, hain zuzen.


Aurten proposamenak aurkeztu dituzten 50 ikasleetatik aukeraketa egin eta bi proiekturi eman diote *Altuning Pro 2013* saria; 2.000 euro proiektu bakoitzak. 2013ko irabazleak Paul Matellanes eta Alberto Diez izan dira.

Paul Matellanesen (Donostia, industria-ingeniarria Tecnun-en) proposamena orientatzaileei (aldi berean, unibertsitateariok dira) bideratuta daude, batxilergoko ikasleei unibertsitateko ikasketa jakin batzuen funtsa erakutsi diezaien. Proiektuaren helburua fakultateetan ikasketak uzten dituztenen kopurua murriztea da. Alberto Diezen proposamena (Beasain, industria-ingeniarria Mondragon Unibertsitatearen eskutik) baliabide ekonomiko urriko pertsona eta familientzako txartel bat egitea da, kultura, kirol, gizarte eta beste arlo batzuetako zerbitzuak eta instalazioak erabiltzeko aukera izan dezaten.

Informazio gehiago:

<http://www.kanpoharremanak.net/kontaktuak.php?id=307>

http://www.euki.org/altuning_gipuzkoa/



KOHESIO-POLITIKA

> Egitura Funtsak ikusgarriago bihurtze aldera komunikazio-estrategiei buruzko mintegia egin da

28 estatu kideetako 800 lagun baino gehiago bildu dira Bruselan “*Telling the Story*” mintegian. Europako Egitura eta Inbertsio Funtsak ahalik eta ondoen komunikatzeko estrategiak eztabaidatzea izan dute xedea. Topaketaren helburu zehatzak hauek izan dira: 2014-2020 finantzaketa-aldian Egitura eta Inbertsio Funtsen programekin batera erabiltzeko komunikazio-estrategietarako oinarri sendoak ematea eta komunikazioaren arloko jardunbide egokiak partekatzea eta herrialdeen eta funtsen arteko ikaskuntza erraztea.

Herrialde eta eskualdeetako agintaritzetan komunikazioaz arduratzen diren funtzionarioek, kudeaketa-agintaritzetako arduradunek, kazetariak, Europar Batasuneko sareetako (adibidez, Europe Direct) kideek eta Europar Batasuneko erakundeetako homologoek ere hartu zuten parte.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/telling-the-story/index_en.cfm

> Akitania-Euskadi Euroeskualdeak inkesta bat abiarazi du lurraldeen arteko lankidetzaren potentzialari buruz


Akitania-Euskadi Euroeskualdeak gogoeta-prozesu bat abiarazi du 2014-2020 aldian Euroeskualdean garatu beharreko lehentasunezko ardatz estrategikoak zehaztuko dituen Proiektu Estrategiko bat gauzatzeko. Dokumentu horrek argi ezarri beharko ditu Euroeskualdeak eta Lurralde mailako Lankidetzako Europako Elkarteak (AECT) Akitania-Euskadi lurraldeko lankidetzan eragile/tresna gisa zer zeregin eta potentzial duten.

Testuinguru horretan, Akitania-Euskadi AECT elkarteak inkesta bat jarri du abian, eta horren bidez jakin nahi du zer iritzi dagoen Euroeskualdean Akitania-Euskadiko eragile ekonomiko eta sozial publiko nahiz pribatuen arteko elkarlanari buruz, bai une honetan Euroeskualdean lankidetzan ari direnei, bai ari ez direnei buruz, eta gai honetan interesa duten gainerako eragileen iritziak ere jakin nahi ditugu.

Informazio gehiago:

<http://www.aquitaine-euskadi.eu>

Galdera-sorta online: <https://adobeformscentral.com/?f=DY91Yf5ZAYoDmM6hH4p7dg#>



> Batzordeak solaskideen zeregina sustatu nahi du Egitura eta Inbertsio Funtsen plangintzan eta gastuan

Europako Batzordeak arau sorta bat onartu berri du solaskideekin Europako Egitura eta Inbertsio Funtsek finantzatutako proiektuen plangintza, aplikazio, jarraipen eta ebaluazioaren inguruko kontsulta, partaidetza eta elkarrizketa hobetzeko. Hauek dira solaskideak, batez ere: eskualdeko, tokiko, hiriko agintariak eta beste agintari publiko batzuk, sindikatuak, enpresaburuen elkarteak, GKEak eta gizarteratzea, genero-berdintasuna eta bazterkeriarik eza sustatzeaz arduratzen diren erakundeak.

Elkartzeko printzipioari buruzko Europako jokabide-kodeak estatu kideei eskatzen die Egitura eta Inbertsio Funtsen gastuaren arduradun diren agintarien eta proiektuen solaskideen arteko elkarlana indar dezatela, 2014-2020 programazio-aldian informazioa, esperientzia, emaitzak eta jardunbide egokiak partekatzea errazagoa izan dadin eta, horrela, dirua eraginkortasunez erabiltzen dela berma dadin.

Europako Jokabide Kodeak Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen inguruko elkarteei buruzko araudiaren bidez ezartzen ditu estatu kideek aplikatu beharreko printzipioak eta tarte handia uzten die programazioaren aldi bakoitzean solaskideen partaidetza-praktiken modalitateak zehatz antola ditzaten.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/esf/BlobServlet?docId=438&langId=es>



> Euskal Eurohirian mugikortasun hobea sustatzeko TRANSFERMUGA dinamikaren ondorioak aurkeztu dituzte

Abenduaren erdialdean, TRANSFERMUGA ekimenaren ondorioak aurkezteko jardunaldia egin zuten Ficoban (Irun). Ekimenaren helburua trenak herritarren mugaz gaindiko mugikortasunean izan duen zeregin egituratzailea indartzea izan da, Euskal Eurohirian garraio-eskaria kudeatzeko zentzuzko eredu bat sustatuz.

TRANSFERMUGA proiektuaren erronkak hainbat dira: hurbileko garraio-eskaintza sortzea, distantzia ertaineko mugaz gaindiko ibilbideak areagotzea, TER-Topo (Euskotrenen linea) aliantzak hobetzea, egokitutako tarifak diseinatzea, txartelen kudeaketa-lana erraztea eta garraioari buruzko bidaiarientzako informazioa argiago bihurtzea. Helburu hori hartuta, bidaiariek Baiona-Donostia igarobidean egiten dituzten mugaz gaindiko lekualdatzeak aztertu eta ezarritako helburuak lortzeko ekintza zehatzak proposatu dira.

Proiektuaren % 65 EGEF funtsek finantzatu dute POCTEFaren bidez eta Akitania-Euskadi Euroeskualdeak zuzendu du. Euskotrenek, Atlantique et Pyrénées Hirigintza Agentziak eta Mugikortasun Iraunkorra eta Logistikako Euskal Erakundea kideek ere hartu dute parte. Gipuzkoako Foru Aldundiak ere hartu du parte TRANSFERMUGA proiektuan, Euskal Eurohiriaren eragile garrantzitsuetako bat den aldetik.

Informazio gehiago:

www.transfermuga.eu



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Zabalik daude HORIZON 2020 programaren lehen deialdiak

Europako Batzordeak HORIZON 2020 programaren baitako proiektuen lehen deialdia argitaratu zuen abenduan. Europar Batasuneko Ikerketa eta Berrikuntza Programa da HORIZON 2020.

Berrikuntzari eta ikerketari bultzada eta babesa emateko programa da eta 2014-2020 aldirako ikertzaile, unibertsitate, enpresa, enpresa txiki eta ertain eta beste entitate batzuei parte hartzeko aukera ematen die. Programaren finantzaketak 15.000 milioi eurotik gora izango ditu 2014-2020 aldirako (urtero 7.500 euro).

HORIZON 2020 ekintzak lehentasunezko hamabi gai ditu ardatz, hiru oinarri nagusitan sailkatuta:

- **Zientzia bikaina:** Europako oinarrizko zientzian bikaintasun maila jasotzea eta Europaren epe luzerako lehiakortasuna bermatzeko kalitatezko ikerketaren fluxu etengabea ziurtatzea du helburua. Hona hemen oinarri honen helburuak: talentua eta sormena duten pertsoneri eta haien taldeei laguntzea kalitate handiko eta punta-puntako ikerketak gauzatzeko, elkarlanean oinarritutako ikerketa finantzatzea ikerketan eta berrikuntzan Etorkizuneko eta Sortzen ari diren Teknologientzako laguntzaren bidez bide berri eta oparoak zabaltzeko, ikertzaileei bikaintasunean oinarritutako prestakuntza ematea garatzeko aukera onenekin eta Europak lehen mailako ikerketarako azpiegiturak dituela ziurtatzea.
- **Lidergoa industrian:** Lehentasun honen helburua etorkizuneko enpresentzat oinarri izango diren teknologien eta berrikuntzen garapena bizkortzea, eta Europako enpresa txiki eta ertain berritzaileei munduan enpresa lider bihurtzeko laguntzea da. Hiru helburu zehatz ditu: lidergoa industria-teknologietan eta gaitzeko teknologietan, arriskuko finantzaketa eskuratzea eta berrikuntza enpresa txiki eta ertainetan.
- **Erronka sozialak:** Bloke honetan daude bilduta Europa 2020 estrategiaren lehentasun politikoak eta erronkak, Batasunaren helburu politikoak erdiesteko bidea emango duten ikerketa eta berrikuntza sustatze aldera. Finantzaketa honako helburu espezifiko (erronka) hauetara bideratuko da: osasuna; aldaketa demografikoa eta ongizatea; segurtasuna elikaduran; nekazaritza eta basogintza iraunkorra; itsasoko eta itsasoari lotutako ikerketa eta barneko uren ikerketa eta bioekonomia; energia segurua, garbia eta eraginkorra; garraio adimendun, ekologiko eta integratua; klimaren aldeko ekintza; ingurumena; eraginkortasuna baliabideetan eta lehengaietan; Europa aldatzen ari den munduan (gizarte inklusiboak, berritzaileak eta gogoetazaleak); gizarte seguruak (Europaren eta bertako herritarren askatasuna eta segurtasuna babestea).

2014-2015aldian, hainbat deialdi argitaratuko ditu Batzordeak HORIZON 2020 programaren harira.

Informazio gehiago:

HORIZON 2020 programa

<http://ec.europa.eu/programmes/horizon2020/en>

HORIZON 2020 Deialdien egutegia

<http://ec.europa.eu/research/participants/portal/desktop/en/opportunities/h2020/index.html>



> **EaSi programak 920 milioi euro bideratu ditu gizarte politika berritzaileetara, laneko mugikortasunera eta ekintzailtza sozialera**

Europar Batasuneko Ministroen Kontseiluak enplegu eta gizarte-berrikuntzarako programa berri bat onartu du: *EIS (Employment and Social Innovation* ingelesez). Programa berri honek gizarte-politika berritzaileei laguntza emango die eta laneko mugikortasuna sustatuko du, mikromaileguak eskuratzeko erraztasunak emanez eta ekintzailtza soziala sustatuz. 920 milioi euro izango ditu 2014-2020 aldirako.

Programa berriak lehendik dauden hiru finantza-tresnen estaldura jaso eta zabaltzen du: Enplegurako eta Gizarte-elkartasunerako Programa (Progress), Enplegu Zerbitzuen Europako Sarea (EURES) eta Mikrofinantzaketarako Europako Tresna Progress.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=en&catId=89&newsId=2010&furtherNews=yes>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> **I+Gerako 7. Esparru Programa, 2007-2013: partaidetza handiko europar eskualdeak**

Europako Batzordeak txosten bat argitaratu du I+Gerako 7. Esparru Programan (2007-2013) gehien parte hartu duten Europako eskualdeen berri emateko. Programa hori lehen, Europan I+G sustatzeko eta garatzeko programa zen eta orain HORIZON programak hartu du haren lekua.

Programaren aurreko edizioan gehien parte hartu duten eskualdeen artean da Euskadi.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/spain/pdf/i+d-europea-espanha-pvasco-2013_es.pdf

http://cordis.europa.eu/fp7/home_en.html

> **SUDOE. 2011-2012-2013ko deialdietako proiektuen katalogoa**

SUDOE programak Europako hego-mendebaldeko eskualdeen garapena laguntzen du EGEFen bidez nazioz gaindiko proiektuen finantzaketan parte hartuz. Europako Lurraldeen arteko Lankidetzarako helburuaren baitakoa da programa.

Europako hego-mendebaldeko espazioa 30 eskualde eta hiri autonomok osatzen dute eta 770.120 km²-ko azalera du; Europar Batasunaren % 18,2, alegia. Espainiakoak, Frantziakoak (hego-mendebaldeko sei eskualdeak: Akitania, Auvernia, Languedoc-Roussillon, Limousin, Midi-Pyrenees eta Poitou-Charentes), Portugalgoak eta Gibraltargoak (Erresuma Batua) dira eskualde eta hiri autonomo horiek. Espazio horrek 62 milioi biztanle biltzen ditu gutxi gorabehera, Europar Batasuneko populazio osoaren % 12,4 inguru.

Katalogo honetan daude jasota SUDOE, Europako Hego-mendebaldeko Espazioko Lurraldeen arteko Lankidetzeta Programako hirugarren (2012) eta laugarren (2013) deialdietan onartutako proiektuak

Informazio gehiago:

<http://interreg-sudoe.eu/contenido-dinamico/libreria-ficheros/68D13966-9BA0-1361-5332-C05A38D8EE17.pdf>



> **EKIN, ERANTZUN, ERABAKI. Europako Parlamenturako hauteskundeak 2014ko maiatzaren 22-25ean**

Maiatzean (22, 23, 24 eta 25) izango dira Europako Parlamenturako hauteskundeak eta horrela hautatutako dira 2014tik 2019ra Euroganbera osatuko duten eta Europako herritarrek ordezkatzeko dituzten Europako diputatuak. Zortzigarren legegaldiari ekingo diogu.

Helburu hori jarrita, web-atari espezifiko bat argitaratu dute eta hor daude ikusgai aipatu dugun hauteskunde-prozesuarekin lotutako dokumentazio eta albiste guztiak.

Informazio gehiago:

<http://www.elections2014.eu/es>